



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko martxoaren 9a

33. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foruzaingoaren lanaldiak, ordutegiak eta ordainsariak arautzekoa. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Iruña-Noaingo aireportua garatzeari eta bultzatzeari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, Caparrosoko abeltzetzarrekoko digestato-isuriei buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, langabeziaren azken datuei buruzkoa. Isabel García Malo andreak egin du (10. or.).
- Galdera, trafikoaren arloko eskumenak Nafarroari eskualdatzeari buruzkoa. Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren barruko jarduketa alderdikoiei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, langabezia borrokatzeko estrategiei eta neurriei buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (11. or.).
- Galdera, osasun-garraioaren kudeaketari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, REACT-EU europar funtsei buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (13. or.).
- Galdera, Nafarroak Europako Bauhaus Berria proiektuan parte hartzeari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, BioSpain foroa Iruñean egiteari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, funts publikoekin ordaindutako ikastetxeetan ikasleen bereizketa kentzeari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, jarduera ekonomikoa eta enplegua 2021ean hazteko aurreikuspenei buruzkoa. María Jesús Valdemoros Erro andreak egin du (15. or.).

- Galdera, pandemia kontrolatzeko neurri murriztailei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (16. or.).
- Galdera, Nafarroako ekonomia 2021ean hazteko aurreikuspeni buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Espainiako Gobernuako lehendakariak iragarritako 11.000 milioi euroko laguntza-planari buruzkoa. José Suárez Benito jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, kontroleko osoko bilkuretako galderak adosteari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, sekretu ofizialen legea aldatzeari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (18. or.).
- Galdera, egoitzen arteko lan-mugikortasunari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (18. or.).
- Galdera, ostalaritzaren eta turismoaren sektorearentzako laguntza berriei buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, kirol-instalazioak gaurkotzeko tresnari buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, Caparrosoko abeltegia handitzeari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (20. or.).
- Galdera, Mikel Zabalzaren erailketa argitzeko Nafarroako Gobernuak aurreikusitako jardueri buruzkoa. Uxue Barcos Berruezo andreak egin du (20. or.).
- Galdera, etorkizunean Landabengo poligonoko Volkswagen taldeko plantan inbertitzeari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (21. or.).
- Galdera, genero-arrakalak murrizteko beharrezko urratsei buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (22. or.).
- Galdera, Kulturako Lanbideei buruzko Lege proiektua idazteko hartutako neurriei buruzkoa. Osoko Bilkuran izapidetzea (22. or.).
- Galdera, CARUEn (Europar Batasunaren inguruko gaietarako konferentzia) Nafarroak duen jarduerari buruzkoa. Galdera erretiratzea (23. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foruzaingoaren lanaldiak, ordutegiak eta ordainsariak arautzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8 egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak Nafarroako Foruzaingoaren lanaldiak, ordutegiak eta ordainsariak arautzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du, eta eskatu du presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadila (10-21/PRO-00005).

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Foruzaingoaren lanaldiak, ordutegiak eta ordainsariak arautzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin.
2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.
3. Foru lege proposamen hori presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.
4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foruzaingoaren lanaldiak, ordutegiak eta ordainsariak arautzekoa

HITZAURREA

Irailaren 28ko 79/2016 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Nafarroako Foruzaingoaren lanaldi eta ordainsarien erregelamendua.

Aipatutako foru dekretu hori dela-eta administrazioarekiko lau auzi-errekurtso aurkeztu ziren, 509/2016, 526/2016, 540/2016 eta 531/2016 prozedura arruntei dagozkienak, zeinak amaitu baitziren kasuko baiespen-epaiekin; hain zuzen, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak emandako 228/2018, 225/2018, 227/2018 eta 226/2018 epaiak, erregelamenduaren erabateko deuseztasuna deklaratu zutenak.

Aipatu erabaki judizialek 79/2016 Foru Dekretuaren erabateko deuseztasuna xedatzen dute, haren izapidetzean forma hutseko akats bat atzemateagatik.

Erabateko deuseztasunaren aplikazio materialaren ondorioz, Nafarroako Foruzaingoaren kideen ehuneko laurogei ingururen ordainsari osagarriak murriztu egin dira 2016ko urtarrilaren 1etik. Proporzioz kanpokotzat jotzen da Foruzaingoaren plantillako pertsona gehienentzat erabateko deuseztasunaren aplikazioak dakarren ondorioa, atzemandako akatsa forma hutsari dagokionean, eta ez ukitutako xedapenaren edukiri.

Foruzaingoaren plantillako pertsona gehienei eraginen dien ustekabeko kalte ekonomiko garrantzitsu bat –aipatu langileei egotzi ezin zaien arrazoiaren ondoriozkoa– saihestu beharrak justifikatzen du foru lege honen onespena.

Bestalde, Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legean lantsaren egitura berria arautzen da Foru Komunitateko polizia-

tzat, eta kontzeptu eta portzentaje-zenbatespen berriak erantsi dira.

Aipatu foru legearen azken xedapenetako lehenak betebeharrak gisa ezartzen du lege horren erregelamenduzko garapenerako beharrezko diren xedapenak ezartzea; besteak beste, Nafarroako Foruzaingoko langileen lanaldiei, ordutegiak eta ordainsariei buruzkoak.

Araugintzako garapen hori oraindik ez denez egin, bidezkoa da, halaber, gai horri esparru juridiko bat ematea, aipatu garapena egin bitartean.

Ondorio horietarako, egokitzat jotzen da indarrean mantentzea deuseztaturiko foru dekretuaren edukia, Foruzaingoaren lanaldiak eta lansariak onetsi arte, hori baita horretarako adostu eta onetsiriko azken testua; eta, haren izapidetzean forma hutseko akats bat egin bazen ere, haren xedapen materialak ez dira inongo zuzenbideren kontrakotzat deklaratu.

I. TITULUA

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da Nafarroako Foruzaingoko kideen lanaldia arautu eta lansarien araubidea ezartzea, hurrengo xedapenetan jasotako baldintzen arabera.

II. TITULUA

Lanaldia eta ordutegiak

2. artikulua. Lanaldia eta lan-ordutegiak

1. Nafarroako Foruzaingoko kideen lanaldia benetako 1.592 lanordukoak izanen da urteko.

Benetako lantzat hartuko da ohiko lantokian zerbitzu-ematearen hasiera-ordutik zerbitzu-ematearen amaiera-ordura arte igarotako denbora. Zerbitzua destinokoa ez den beste herri batean emanez gero, benetako lanaldia neurtuko da ohiko lantokira iristen denetik bertara itzuli eta zerbitzua amaitzen den arte.

2. Aurreko apartatuan finkatuari jarraituz zenbaturiko urteko lanordu-kopuruaren gainean ordu-kontentsazioa aplikatu ondoren, ondoren aipatzen diren txanda-araubideetakoren batean lan egiten duten Nafarroako Foruzaingoko langileek lanpostuan benetan egon beharreko lanaldi hau izanen dute:

a) Goizeko, arratsaldeko eta gaueko txanda: 1.457 ordu urtean.

b) Gaueko txanda finkoa: 1.535 ordu urtean.

c) Goiz eta arratsaldeetako txanda, igande eta jaiegunetan lan eginda: 1.554 ordu urtean.

d) Lanaldi zatitua, igande eta jaiegunetan lan eginda: 1.569 ordu urtean.

Benetako zerbitzua txanda horietako batean ematen ez duten Nafarroako Foruzaingoko langileei Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko funtzionarioei aplikatzekoak zaizkien xedapen orokorrak ezarriko zaizkie; zehazki, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko eta haren erakunde autonomoetako langileen lan-egutegia urteron onesten duen foru agindua.

3. Aurreko apartatuan aurreikusitako lan txandetan, gaueko lanaldiak zortzi ordukoak izanen dira gehienez ere.

4. Oro har, 24 orduko aldi bakoitzerako, 11 ordu jarraituko atsedenaldi gutxienekoa ezartzen da. Zazpi egun jarraituko lanaldi bakoitzeko, 24 orduko gutxieneko atsedenaldi etengabea izanen da, zeinari gehituko baitzaizkio aurreko paragrafoan aipatzen diren eguneroko atsedeneko 11 orduak.

Sindikatuarekin aldeztu aurretik negoziatuta ezarri ahalko da aurreko paragrafoan aurreikusitako atsedenaldien berezko araubide bat, betiere kontentsaziorako atsedenaldi baliokideak edota babes baliokidea ematen badira eta araubide hori atxikitako funtzionarioen segurtasuna eta osasuna modu egokian zaindu eta babesten badira.

5. Nafarroako Foruzaingoko langileek guardia lokalizatuen araubidean jardun ahalko dute; kasu horretan, laneko hamabost minutu zenbatuko zaizkie eginiko guardia-ordu bakoitzagatik. Bertaratzeko eskatzen zaienean lanaldi osoa zenbatuko zaie; edo, gehiago luzatuz gero, benetan eginiko ordu kopurua.

6. Organo eskudunak ezarriko ditu lan-egutegiak, urtea hasi baino lehen, eta kasuan kasuko iragarki-oholetan jarriko dira. Egutegian zehaztu ahalko dira laneko txandak, guardia lokalizatuak eta jaiegunetako lana.

Salbuespen gisa, eta larrialdi eta babes zibileko arrazoiak tarteko, egutegi horiek aldatu ahalko dira, era arrazoituan. Aldaketa horiek idatziz jakinaraziko zaizkie interesdunei.

Foruzaingoaren buruak emandako jarraibideen bidez eta aldeztu aurretik sindikatuarekin negoziatuta zehaztuko dira laneko txandak, guardia lokalizatuak eta jaiegunetako lana.

3. artikulua. Dei-egitea.

1. Zerbitzuaren beharrak tarteko, norbaiti bere txanda edo lanalditik kanpo dei egiten bazaio atxikirik dagoen unitatean zerbitzuak emateko, behartuta egonen da deiari erantzutera eta hori dela-eta eskatzen zaizkion eginkizun guztiak betetzera.

2. Zerbitzuaren beharrak tarteko, norbaiti dei eginez gero zerbitzuak emateko bere lan-egutegian atsedenaldi gisa ezarritako egun batean, dagozkion aparteko orduak sorraraziko ditu, bere lanpostuak dedikazio eskusiboa edo lanaldiaren luzapena berekin dakarrenean izan ezik, eta guardia lokalizatueterako ezarritakoa galarazi gabe.

3. Atxikipen unitatetik kanpo zerbitzua emateko deia egin ahalko da, soil-soilik, salbuespenez eta presazko edo ezinbesteko arrazoiak tarteko.

4. artikulua. Asteburuak.

1. Nafarroako Foruzaingoko kide orok eskubidea izanen du urteko asteburuaren erdiak gozatzeko.

2. Betiere zerbitzuaren beharrek horretarako aukera ematen badute, gozatze-eskubide hori lan-egutegietan jasoko da eta asteburuak txandaka hartuko dira.

3. Urteko lan-egutegietan gehienez ere laneko 29 asteburu ezarri ahalko dira.

4. Beharrezkoa balitz, hiru asteburutan jarraian zerbitzua emateko mekanismo bat ezarriko da, urtean bi aldiz.

5. Soilik artikulua honen ondorioetarako, asteburutzat ulertuko da larunbata eta igandea osorik edo, txandakako lanaren kasuan, ostiraleko gaueko txandako sarreratik igandeko arratsaldeko txandako irteera arte doan denbora-tartea.

5. artikulua. Kontrola.

Nafarroako Foruzaingoko kideen lanaldi eta ordutegien kontrolaren arduradun zuzenak izanen dira kasuan kasuko antolaketa-unitateetako buruak, ezertan galarazi gabe goragoko agintarien eta Foruzaingoaren buruaren goi mailako ikuska-pena.

III. TITULUA
Ordainsariak**6. artikulua.** Ordainsarien araubidea.

1. Nafarroako Foruzaingoko kideek ondoko kontzeptu hauei dagozkien ordainsariak jasoko dituzte, ez besterik:

A. Norberaren oinarritzko ordainsariak:

a) Mailari dagokion hasierako soldata.

b) Graduari dagokion ordainsaria.

c) Antzinasun saria.

Norberaren oinarritzko ordainsariak eskubide eskuratua dira, funtzionario izaerari datzekiona.

B. Ordainsari osagarriak:

a) Berariazko osagarria.

b) Lanpostuaren osagarria.

c) Burutzaren osagarria.

d) Txandakako lanaldiaren osagarria.

e) Lanaldiaren luzapeneko osagarria.

f) Aldi baterako osagarri pertsonala bigarren jardueran aritzeagatik.

Lansari horiek dira esleituta dituen lanpostua betetzeagatik ordaina, eta, ondorioz, haiek jasotzeari utziko zaio lanpostua utzitakoan.

C. Bestelako ordainsariak:

a) Zerbitzuan izandako gastuen kalte-ordaina.

b) Egindako bidaien kalte-ordaina.

c) Bizileku-aldaketadun nahitaezko lekualdatzeagatik kalte-ordaina.

d) Familia-laguntza, familia-unitateak sortutako gastuak jasoko dituen.

e) Aparteko orduen konpentsazioa, gaueko ordutegian edo jaiegunetan egiten direnena, bertan egoteko guardiak eta guardia lokalizatuak egiteagatik, langileak hautatzeko epaimahaietan parte hartzeagatik eta prestakuntza ikastaroak emateagatik.

2. Oinarritzko ordainsari pertsonalak eta artikulua honetako 1. apartatuko C) letran adierazitakoak Nafarroako administrazio publikoen gainerako funtzionarioei oro har aplikatzekoak zaizkien arauen arabera antolatuko dira, betiere Nafarroako polizia buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legean ezartzen diren berezitasunak kontuan hartuta.

7. artikulua. Berariazko osagarria.

1. Nafarroako Foruzaingoko kide guztiak jasoko dute berariazko osagarria. Osagarriaren zenbatekoa kasuan kasuko mailaren hasierako soldataren ehuneko 45 izanen da, eta barne hartuko ditu bai polizia-bateraezintasuna (ehuneko 35) bai arrisku berezia (ehuneko 10).

2. Lanpostuak dedikazio eskusiboa eskatzen badu, berariazko osagarria kasuan kasuko mailaren hasierako soldataren ehuneko 65 izanen da.

Portzentaje horren barruan, arrisku bereziari dagokion ehuneko 10a sartuta dago.

3. Nafarroako Foruzaingoko inongo kidek ezin izanen ditu aldi berean jaso bateraezintasunaren osagarri hori eta dedikazio eskusiboko osagarria.

4. Dedikazio eskusiboko osagarria kobratzeak debekua dakar irabazizko inolako jarduerarik egiteko, hala sektore publikoan nola pribatuan ere, non ez den irakasle lana unibertsitateko zentroetan, norberaren edo familiaren ondarea administratzea, lan zientifiko eta teknikoak edo literatur eta arte lanak ekoitzi eta sortzea, eztabaida eta programetan noizbehinka parte hartzea, ikastaro profesionaletan noizbehinka lagundu eta parte hartzea, eta baimendurik dauden beste jarduera batzuetan aritza.

5. Bateraezintasun-osagarria jasotzeak berekin dakar kasuko lanpostuari dagokion tituluaren lanbide-jardueraren debekua.

6. Prestakuntza tekniko, eskuragarritasun eta erantzukizunaren berezitasunagatik, dedikazio eskusiboko lanpostuak izanen dira Polizia Judizialeko Dibisiokoak, lurraldeko polizia-etxeetako Polizia Judizialeko taldeetakoak, Agintariak Babesteko Dibisiokoak, komisario nagusienak, komisarioenak eta inspektoreenak.

Dedikazio eskusiboko lanpostuak betetzen dituzten Nafarroako Foruzaingoko kideek ezin izanen dute aparteko ordurik kobratu.

Dedikazio eskusiboko lanpostuak betetzen dituzten Nafarroako Foruzaingoko kideek ez dute eginen, urtean, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioako gainerako funtzionarioentzat oro har ezarritako gehieneko lanaldia baino luzeagorik.

8. artikulua. Lanpostuko osagarria.

1. Lanpostuko osagarriaren bidez zailtasuna, dedikazioa eta erantzukizuna saritzen dira, bai eta eskatzen den prestakuntza tekniko berezia ere.

Halaber, diru-sari bat eman ahalko da prestakuntza fisikoan emandako denboragatik.

2. Nafarroako Foruzaingoko kideek lanpostuko osagarri gisa jasoko dute mailari dagokion hasierako soldataren gaineko portzentaje bat. Haren gutxieneko zenbatekoa ondokoa izanen da, kategorien arabera xehakaturata:

- a) Polizia: % 6,45.
- b) Kaboa: % 17.
- c) Inspektoreordea: % 10.
- d) Inspektorea: % 17.

e) Komisarioa: % 5.

f) Komisario nagusia: % 17.

3. Lanpostuko osagarria zehaztuko da aurreko apartatuan ezarritako gutxieneko zenbatekoei batuta lanpostuen azterketan egiten den balorazioetik ondorioztaturiko ehunekoak, foru lege honen eranskinetan jasotzen diren Balorazio Eskuliburu-ko irizpideen eta horren arabera puntuazioei jarraikiz.

Enplegu bereko lanpostu desberdinen artean kontzeptu horrengatik jasotako lansariak izanen dituen gehieneko aldeak ehuneko 7koak izanen dira.

9. artikulua. Burutzako osagarria.

Burutzako osagarria jasoko duten lanpostuak izanen dira haietan jarduteak enplegu barruko aginte egoera berezikoak izatea eskatzen duenekoak, eta haren zenbatekoa kasuan kasuko mailari dagokion oinarriko soldataren portzentaje bat izanen da, ondokoaren arabera:

- a) Arloko burutza: % 10.
- b) Polizia-etxeeko eta Dibisioko burutza: % 9.
- c) Brigadako burutza: % 7.
- d) Taldeko burutza: % 5.

10. artikulua. Txandakako lanaldiaren osagarria.

Txandakako lanaldiaren osagarri bat ezartzen da, zeinaren zenbatekoa kasuan kasuko mailaren hasierako soldataren ehuneko 6koa izanen baita, errotaio-txanden arabera araubidean lan egiten duten Nafarroako Foruzaingoko kideentzat, halakotzat ulerturik lan-ordutegia lanaldien heren batean baino gehiagotan aldatu behar izatea dakartenak, hiruhileko bakoitzean kontaketa orokorra eginda.

11. artikulua. Lanaldiaren luzapeneko osagarria.

Orokorrean ezarritakoaz goragoko lanaldia egitera behartu ohi duten lanpostuei lanaldiaren luzapeneko osagarri bat esleitzen zaie, zeinaren zenbatekoa kasuan kasuko mailaren hasierako soldataren ehuneko 10ekoa izanen baita.

Lanaldiaren luzapeneko osagarria jasotzen duten Nafarroako Foruzaingoko kideek ezin izanen dute aparteko ordurik kobratu.

Lanaldiaren luzapeneko osagarria bateraezina da dedikazio eskusiboarekin.

12. artikulua. Txanda aldaketak.

1. Txanda edo zerbitzu aldaketak eskatu ahal-ko dira enplegu eta antolaketa-unitate berari atxikitakoen artean soilik.

2. Eskaerak idatziz aurkeztuko dira, ukitutako txandetako lehena hasi baino lehen.

3. Txanda aldaketek ez dute eraginik izanen eskatzaileen ordu-kopuruan, eta bai txanda aldaketa bai haren itzulketa urte beraren barruan egin beharko dira.

4. Edozein txanda aldaketa egiteko, aldeztu aurretik baimena eman beharko du eskatzaileak atxikita dauden antolaketa-unitateko buruak, eta baimen hori betiere zerbitzuaren beharretara baldintzatuta egonen da.

13. artikulua. Ehunekoak eguneratzea.

Foru lege hau indarrean sartu ondoren, aurreko artikuluetan aurreikusitako osagarrien kontzeptuengatik lanpostu bakoitzari esleituriko ehunekoaren eguneratzea egiten da barne gaitako eskumena duen departamentuko kontseilariaren foru agindu bidez, aldeztu aurretik sindikatuetako ordezkariekin negoziatuta, eta betiere foru lege honen eranskinetan jasotako balorazio irizpideak aplikatuta.

14. artikulua. Proba fisikoak gaintzeagatik konpentsazioa.

1. Nafarroako Foruzaingoko kideei esleitutako eginkizunen izaera eta haiek modu egokian bete-tzeak eskatzen du kidego horietako kideak sasoi onean egotea, eta horretarako beharrezkoa den prestakuntza lan-denboraren kontura egin behar da.

2. Prestakuntza horrek eskatzen duen ahalegin pertsonala saritze aldera, kasuko proba fisikoak gaintzen dituzten Nafarroako foruzain guztiei aplikatuko zaie urteko 126 orduko konpentsazioa. Ordu konpentsazio horretatik 21 edo 24 ordu baliatu ahal-ko dira bi hilabete bakoitzeko, interesdunak eskatuta, eta horretarako baimena zerbitzuaren beharretara baldintzatuta egonen da.

Hala, proba fisikoetarako deialdia urte bakoitzeko azken hiruhilekoan egiten da. Halaber, deialdi nagusia egiten den urtearen hurrengoaren martxoan "gertakari proba" bat egiten da, salbuespenezko eta justifikatutako arrazoiak direla-eta hasiera batean ezarritako egunetan probak egiterik izan ez zuten pertsonentzat. Nafarroako Foruzaingoko kideek proba fisikoak egiten ematen duten denbora benetan lan egindakotzat hartuko da.

3. Laneko istripua, gaixotasun profesionala, haurdunaldia edo amatasuna dela-eta proba fisikoak egiterik izan ez dutenek dagozkien orduak baliatzeko eskubidea sortuko dute, baldin eta proba fisikoak gaintu egin bazituzten parte hartu ahal izan zuten azken deialdian, lan istripua izan edo lan gaixotasunagatik, haurdunaldiagatik edo amatasunagatik baja hasi baino lehenagokoa.

4. Proba fisikoaren konpentsazio ekonomikoa aukeratzeko Nafarroako Foruzaingoko kideek mailari dagokion hasierako soldataren % 17 jasoko dute. Aukera hori, edonola ere, gauzatuko den urtearen aurreko urtearen irailaren 1a baino lehen eskatu beharko da, izaera indibiduala izan da, eta bi urteko eperako loteslea izan da.

5. Oro har, proba fisikoak egiteko deia egiten zaie jardunean edo eszedentzia bereziko egoeran dauden Nafarroako Foruzaingoko kideei bakarrik.

Zerbitzu berezietako egoeran dauden Nafarroako Foruzaingoko kideek ez dute proba fisikorik egin beharko egoera horretan dauden bitartean. Zerbitzu aktibora bueltatzen badira, kasuko konpentsazioa izanen dute, zerbitzu berezietako egoerara pasatu aurreko baldintza beretan.

Aurreko paragrafoan ezarritakotik salbuesita geratuko dira Nafarroako Segurtasun Eskolan zerbitzu berezietako egoeran dauden Nafarroako Foruzaingoko kideak, igoerarako ikastaro bat egiten ari badira.

Borondatezko eszedentzia baten ondoren jarduneko egoerara itzultzen diren Nafarroako Foruzaingoko kideek ez dute proba fisikoaren konpentsaziorik izanen, parte har dezaketen hurrengo deialdian proba fisikoak gaintu arte.

Xedapen gehigarri bakarra. Ordainsariak

Foru lege hau indarrean sartzea galarazi gabe, azken xedapen bakarrean ezarritakoari jarraituz, 2016ko urtarrilaren 1erako atzeraeraginez aplikatuko zaie Nafarroako Foruzaingoko lanaldi eta ordainsarien Erregelamendua onesten duen irailaren 28ko 79/2016 Foru Dekretuaren aplikazioak data horretatik aurrerako ordainsari osagarrien gehikuntza ekarri zien foruzainei, eta 2016ko urriaren 1erako atzeraeraginez, berriz, ordainsari gehikuntza azken data horretatik aurrera ekarri zien foruzainei.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Indargabetzen diren arauak.

Indargabetu egiten dira foru lege honetan xedatutakoaren kontrakoak diren maila bereko

edo apalagoko xedapen guztiak eta, zehazki, ondoko hauek:

a) 1/2005 Foru Dekretua, urtarrilaren 10ekoa, Nafarroako Foruzaingoko kideen lanaldien, ordutegien eta ordainsarien Erregelamendua onesten duena.

b) Otsailaren 12ko 11/2007 Foru Dekretuaren 4. artikulua. Foru dekretu hori da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren funtzionarioen ordainsari osagarrien gehikuntzak aplikatzen dituen, horrela betetzen baita Administrazioak eta sindikatuek izenpetu zuten akordioa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen lan baldintzei buruzkoa, 2006. eta 2007. urteetarakoa.

c) Martxoaren 17ko 19/2008 Foru Dekretuaren 1. artikuluko A) apartatua. Foru dekretu hori da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren funtzionarioen ordainsari osagarriak egokitzen dituen, horrela betetzen baita Administrazioak

eta sindikatuek izenpetu zuten akordioa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen lan baldintzei buruzkoa, 2006. eta 2007. urteetarakoa.

d) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa aldatzen duen otsailaren 7ko 7/2011 Foru Dekretuaren lehen xedapen gehigarria.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea eta indarraldia.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Lege honetan ezarritakoak indarra izanen du Nafarroako Polizien azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legean ezarritakoa aplikatzearen ondorioz Nafarroako Foruzaingoko kideen lanaldiak eta ordainsariak arautzeko onesten den araudi berria indarrean sartzeko den egunera arte.

F saila:
GALDERAK

Galdera, Iruña-Noingo aireportua garatzeari eta bultzatzeari buruzkoa.*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, Iruña-Noingo aireportua garatzeari eta bultzatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lurralde Kohesiorako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Batzordean ahoz erantzun diezaion:

Gobernua zer jarduketa egiten ari da edo egiten ditu epe motzean Iruña-Noingo aireportua garatzeko eta bultzatzeko? Zertan dira jarduketa horiek?

Iruñean, 2021eko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, Caparrosoko abeltegitzarreko digestato-isuriei buruzkoa.*MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztutako galdera, Caparrosoko abeltegitzarreko digestato-isuriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Caparrosoko abeltegitzarrak herriaren inguruetan isuritako digestatoek eragindako kutsadura salatu du Greenpeace talde ekologistak.

Hori dela eta, honako hau jakin nahi dugu:

Zure departamentuak edo Gobernuko besteren batek zehapen-espediterik abiarazi al du abeltegi horren jarduera dela-eta? Ingurumenarekin lotutako inolako neurririk hartzen ari al da kutsadura hori ekiditeko?

Iruñean, 2021eko otsailaren 28an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

Galdera, langabeziaren azken datuei buruzkoa.

ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel García Malo andreak aurkeztutako galdera, langabeziaren azken datuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Eskubide Sozialetan izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako kontseilariak batzordean ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer analisi egiten du langabeziari buruzko azken datuak direla-eta?

Iruñean, 2021eko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, trafikoaren arloko eskumenak Nafarroari eskualdatzeari buruzkoa.

BLANCA ISABEL REGÚLEZ ÁLVAREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak aurkeztutako galdera, trafikoaren arloko eskumenak Nafarroari eskualdatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Blanca Regúlez Álvarez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilaria zer zuzemen egiten ari da Estatuko Gobernuak bere konpromisoa bete eta trafikoaren eskumena Nafarroari eskualda diezaion?

Iruñean, 2021eko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Blanca Regúlez Álvarez

Galdera, Nafarroako Gobernuaren barruko jarduketa alderdikoiei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuaren barruko jarduketa alderdikoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakari María Victoria Chivite Navascués andreak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

• Ohikoa izanen al da Gobernua osatzen duten alderdi politikoek alderdi-ekitaldiak egitea Nafarroako Gobernuaren jarduketan berri emateko ala, aitzitik, beharrezkoa ikusten al duzu neurriak hartzea Gobernuaren baitan jarduketa alderdikoiak ekiditeko?

Iruñean, 2021eko martxoaren 23an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, langabezia borrokatzeko estrategiei eta neurriei buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, langabezia borrokatzeko estrategiei eta neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa De Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Parlamentu honen hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Oraintsu jakin dugunez, otsailean bosgarren aldiz jarraian igo zen langabezia Nafarroan, langabetuen kopurua 42.986 pertsonakoa izateraino igo ere.

Igoera berri honek –Nafarroan langabeziari dagokionez azken 15 urteotan izan den daturik txarretan bigarrena– 1.261 lanpostu gehiago galtzea ekarri du.

Kopuru horiek bereziki lazgarriak dira zerbitzuen sektorean eta gazteen, emakumeen eta migratzaileen kolektiboetan.

Ohartzen gara egungo osasun-egoera dela, neurri handi batean, kopuru horiek eragin dituen, eta uste dugu Nafarroako Gobernuak kopuru horiek leheneratzeko lan egin behar duela.

Nafarroako Gobernuak zer estrategia eta zer neurri ezarriko ditu langabeziaren hazkundera borrokatzeko eta kalitatezko enplegu egonkorra sortzen laguntzeko?

Iruñean, 2021eko martxoaren 4an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, osasun-garraioaren kudeaketari buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako galdera, osasun-garraioaren kudeaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, lehen lehendakariorde eta Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak 2021eko martxoaren 11ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer neurri hartuko du foru erkidegoko osasun-garraioaren kudeaketari buruzko eredu egoki bati dagokionez aitzinera behin betikoz egiteko?

Iruñean, 2021eko martxoaren 4an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

Galdera, REACT-EU europar funtsei buruzkoa.

AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, REACT-EU europar funtsei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Gárate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer lehentasun ezarri du REACT-EU europar funtsak esleitzeko orduan?

Iruñean, 2021eko martxoaren 4an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

Galdera, Nafarroak Europako Bauhaus Berria proiektuan parte hartzeari buruzkoa.

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroak Europako Bauhaus Berria proiektuan parte hartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, bigarren lehendakariorde eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Walter Gropius alemaniar arkitektoak Staatliche Bauhaus izenekoa –Estatu-eraikuntzaren E-

txea– sortu zuen Weimarren, 1919an; eta horrekin batera, arkitektura, diseinu, artisautza eta arte kontzeptu berri bat. Bere sormen-eredua Europa osoan hedatu zen, eta artelana ulertzeko beste modu bat ekarri zuen. Orain dela gutxi, Europar Batasunaren egoerari buruzko diskurtsoan Ursula von der Leyenek Europako Parlamentuan adierazitako ideia baten eskutik, Europako Batzordeak Europako Bauhaus Berrirako proposamena aurkeztu du; ingurumen-, ekonomia- eta kultura-proiektu bat da, helburu duena diseinua, jasangarritasuna, irisgarritasuna, ordaingarritasuna eta inbertsioa uztartzea, Europako Itun Berdea betetzen laguntzeko. Horren funtsezko balioak, beraz, jasangarritasuna, estetika eta inklusioa dira. Diseinu-fasearen xedea da kontzeptua gorpuztea, ideiak esploratuz, beharrian nahiz erronka behinenak detektatuz eta interesa duten alderdiak konektatuz.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dut:

Zein da gure erkidegoaren parte-hartzea proiektu horretan? Zein da Europako Bauhaus Berrian ezarritako zeharkako ardatzen eta ildoen aplikazioa Nafarroan?

Iruñean, 2021eko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

Galdera, BioSpain foroa Iruñean egiteari buruzkoa.

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztutako galdera, BioSpain foroa Iruñean egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau aurkezten du, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iruña bioteknologiaren munduko erdigunea izanen da heldu den irailean, BioSpain foroa antolatuko baitu. Ia hiru urte antolatu gabe egon ondotik, gure erkidegoko hiriburuak hartuko du ekitaldi hori, hiria estatuko –eta munduko, esan genezake– talentuaren erakusleihu bihurtuko duena irailaren 27tik urriaren 11ra bitarte, hala modu presentzian nola telematikoan.

Hori dela-eta, galdera hau egiten diogu Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariari:

Zeintzuk dira BioSpain foroa Iruñean egitean lortu nahi diren helburuak? Zer ondorio uste duzue izanen dituela gure erkidegoarentzat?

Iruñean, 2021eko martxoaren 4an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

Galdera, funts publikoekin ordaindutako ikastetxeetan ikasleen bereizketa kentzeari buruzkoa.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkeztutako galdera, funts publikoekin ordaindutako ikastetxeetan ikasleen bereizketa kentzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Pedro González Felipe jaunak honako galdera hau egiten dio Hezkuntzako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Zer neurri hartuko dituzu Nafarroako Foru Komunitatean funts publikoekin ordaindutako ikastetxeetan ikasleen bereizketa kentzeko?

Iruñean, 2021eko martxoaren 3an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

Galdera, jarduera ekonomikoa eta enplegua 2021ean hazteko aurreikuspeni buruzkoa.

MARÍA JESÚS VALDEMOROS ERRO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Jesús Valdemoros Erro andreak aurkeztutako galdera, jarduera ekonomikoa eta enplegua 2021ean hazteko aurreikuspeni buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari María Jesús Valdemoros Erro andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Pandemiaren azken olatu honetan mugikortasuna nahiz jarduera murrizteko neurriek zer eragin izan dute, Nafarroako Gobernuaren ustez, 2021erako Nafarroaren jarduera ekonomikoa eta enpleguaren hazkundeaz zituen aurreikuspeni begira?

Iruñean, 2021eko martxoaren 3an

Foru parlamentaria: María Jesús Valdemoros Erro

Galdera, pandemia kontrolatzeko neurri murriztailei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, pandemia kontrolatzeko neurri murriztailei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernua zer irizpide, atalase eta ponderazio erabiltzen ari da pandemia kontrolatzeko neurri murriztaileen gaineko erabakiak hartzeko?

Iruñean, 2021eko martxoaren 4an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Nafarroako ekonomia 2021ean hazteko aurreikuspeni buruzkoa.

CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako ekonomia 2021ean hazteko aurreikuspeni buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190., 191. eta 192. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Garapen Ekonomikorako kontseilariak ahoz erantzun dezan:

Gobernua zer datutan oinarritzen da Nafarroako ekonomia 2021ean % 6,5 haziko dela aurreikuszeko? Zein izanen litzateke 2019arekiko hazkundeak?

Iruñean, 2021eko martxoaren 4an

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Galdera, Espainiako Gobernuko lehendakariak iragarritako 11.000 milioi euroko laguntza-planari buruzkoa.

JOSÉ SUÁREZ BENITO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Suárez Benito jaunak aurkeztutako galdera, Espainiako Gobernuko lehendakariak iragarritako 11.000 milioi euroko laguntza-planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen José Suárez Benito jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Espainiako Gobernuko lehendakariak 11.000 milioi euroko laguntza-plan bat iragarri zuen otsailaren 24an. Nafarroako Gobernuak zer informazio dauka plan horri buruz? Izan ere, planak eragina du edo izan dezake Nafarroako enpresean, enpresa txiki eta ertainetan nahiz autonomoengan, bai eta Nafarroako Gobernuarengan ere, balizko kofinantzatzailea den aldetik.

Iruñean, 2021eko martxoaren 4an

Foru parlamentaria: José Suárez Benito

Galdera, kontroleko osoko bilkuretako galderak adosteari buruzkoa.

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztutako galdera, kontroleko osoko bilkuretako galderak adosteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuko kideek adostu egiten al dituzte Gobernua kontrolatzeko osoko bilkuretako galderak zenbait talde parlamentariotako eledunek gobernua "gorets" dezaten ala sozialisten eledunak onartutako jokabide hori kasualitateari zor zaio?

Iruñean, 2021eko martxoaren 4an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, sekretu ofizialen legea aldatzeari buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, sekretu ofizialen legea aldatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkartearen eledun Ainhoa Aznárez

Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak martxoaren 11ko Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Juan Carlos Perote CESIDeko koronela zenak eta Pedro Gómez Nieto Guardia Zibileko kapitainak elkarriketa batean onartu zuten nafar gaztea Intxaurrendoko kuartelean pairatutako torturen ondorioz hil zela 1985ean. Audio hori zabaldu ostean,

Gobernuak zer iritzi dio sekretu ofizialen legea aldatzeko aukerari?

Iruñean, 2021eko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, egoitzen arteko lan-mugikortasunari buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako galdera, egoitzen arteko lan-mugikortasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Eskubide Sozialetako kontseilariak martxoaren 11ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

El Vergel, San José eta Santo Domingoko langileek eskatu dute zahar egoitza horien arteko lan-mugikortasuna berrezar dadin. Eskubide Sozialetako kontseilariak zer iritzi dio eskari horri?

Iruñean, 2021eko martxoaren 4an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, ostalaritzaren eta turismoaren sektorearentzako laguntza berriei buruzkoa.

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztutako galdera, ostalaritzaren eta turismoaren sektorearentzako laguntza berriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du,

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Heldu den astelehenean –martxoaren 15ean–, ostalaritzarentzako eta turismoarentzako laguntza berrietarako eskabideak aurkezteko epea irekiko du Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak. Oraintsu iragarritako laguntza horiek 18,5 milioi euroko aurrekontu-zuzkidura izanen dute.

Nolabait ere, iragan abenduan emandako dirulaguntzei jarraipena ematera datoz, eta horiei esker gure erkidegoa aitzindari da Estatuan laguntza zuzenei dagokienez.

Hori dela-eta, galdera hau egiten diogu Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariari, ahoz erantzun dezan:

Laguntza horiek zer ezaugarri izanen dituzte? zer helburu lortu nahi da horien bidez?

Iruñean, 2021eko martxoaren 4an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

Galdera, kirol-instalazioak gaurkotzeko tresnari buruzkoa.

ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkeztutako galdera, kirol-instalazioak gaurkotzeko tresnari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Kultura eta Kiroleko kontseilariak batzordean ahoz erantzun diezaioten:

Departamentuak zer ondorio ateratzen du kirol-instalazioak gaurkotzeko tresnan izena emateko epea bukatu eta gero? Zeintzuk izanen dira hurrengo urratsak eta epeak instalazio horien beharrezkoak izango diren?

Iruñean, 2021eko martxoaren 4an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

Galdera, Caparrosoko abeltegia handitzeari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Caparrosoko abeltegia handitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak 2021eko martxoaren 11ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Auzitegi Nagusiak hein batean onartu du Odietako kooperatibak Caparrosen duen abeltegia handitzeari buruz aurkeztutako errekurtsioa. Hortaz, ematen du litekeena dela abeltegi hori 3.450 abelburukoa izatetik 7.200 abelburukoa izatera igarotzea. Horrek abeltegitzar bihurtuko luke abeltegi hori, eta ondorioak izanen lituzke inguruko ustiategi askoz ere txikiago eta familiarretan.

Bestalde, orain dela gutxi, Greenpeace talde ekologistak salatu egin zuen minda isurketek Aragoi ibaiaren behe tarteak kutsatu dituztela, zainketa bereziko eremuak ukituz, eta orobat salatu zuen isurketak egin izana abeltegitik hurbil dauden nekazaritza-eremuetan, minden korrontek eraginez.

Gobernuak zer balorazio egiten du eta zer neurri hartuko ditu Caparrosoko abeltegia handitzeko aukerari begira eta abeltegi horrek ingurumenaren auka ustez egindakoen salaketa ugariak direla-eta?

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Mikel Zabalzaren erailketa argitzeko Nafarroako Gobernuak aurreikusitako jardueri buruzkoa.

UXUE BARCOS BERRUEZO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Uxue Barcos Berruezo andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Mikel Zabalzaren erailketa argitzeko Nafarroako Gobernuak aurreikusitako jardueri buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko Uxue Barkos Berruezo andreak, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak heldu den martxoaren 11ko Legebiltzarren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Mikel Zabalza erail zutela iradokitzen duten audioak otsailaren 22an ezagutu ostean, Foru Parlamentuak martxoaren 1ean aho batez eskatu zuen gertakari horiek ikertu eta argitu daitezen.

Nafarroako Gobernuak lehendakari zaren aldetik, zer egingen duzu horri dagokionez?

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Foru parlamentaria: Uxue Barkos Berruezo

Galdera, etorkizunean Landabengo poligonoko Volkswagen taldeko plantan inbertitzeari buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, etorkizunean Landabengo poligonoko Volkswagen taldeko plantan inbertitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioaren eledun Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Zure gobernua zer ari da egiten Volkswagen taldeak etorkizunean Landabengo poligonoko plantan inbertitzea –bereziki, ibilgailu elektrikoaren arloan– aldezteko?

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea

Galdera, genero-arrakalak murrizteko beharrezko urratsei buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, genero-arrakalak murrizteko beharrezko urratsei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak 2021eko martxoaren 11ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Nafarroako Gobernuak zer urrats uste du egin behar direla dauden genero-arrakalak murrizteko?

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

Galdera, Kulturako Lanbideei buruzko Lege proiektua idazteko hartutako neurriei buruzkoa.

OSOKO BILKURAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Osoko Bilkuran izapidetu dadin Carlos Mena Blasco jaunak aurkezturiko galdera, Kulturako Lanbideei buruzko Lege proiektua idazteko hartutako neurriei buruzkoa. Galdera

2021eko martxoaren 5eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/POR-00109).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, CARUEn (Europar Batasunaren inguruko gaietarako konferentzia) Nafarroak duen jarduerari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Isabel Olave Ballarena andreak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera CARUEn (Europar Batasunaren inguruko gaietarako konferentzia)

Nafarroak duen jarduerari buruzkoa zen, eta 2021eko urtarrilaren 29ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

